

# © Hitzontzi ©

## Liburu denda perfektua

IBAN ZALDUA



Niretzat hau zen, hau da oraindik, liburu denda perfektua. Eta handiena, hori esan gabe doa. Auzoan bazegoen paper denda estu bat, egunkariez gain zenbait komiki saltzen zituena, eta baita liburu batzuk ere, baina ez zen toki eroso. Ematen zuen bezeroak lehenbailehen joatea desio zutela jabeek, dendetxoan traba egingo balute, bagenu bezala. Hara amarekin sartu, hilabeteko komikiak erosi –Carlitos, El Jabato, SuperMortadelo, Spider-man– eta laster batean irteten ginen. Auskalo existituko den oraindik, paper denda hura...

Ez, niri garai haietan gustatzen zitzaidan liburu denda Baionako Carrefour-ekoa zen; tira, egun badakit Angelu dela, bertan dagoela merkataritza gun handia, baina orduan guretzat, donostiar peto-petoak, Baiona zen: Baiona, Frantzia. Garai hartan ez zegoen halako hipermerkaturik Hegoaldean, eta hilean behin-edo hara joaten ginen aita, ama eta hirurok arratsalde pasa egitera eta esnea eta jogurtak erostera. Jogurtak hobeak eta esnea merkeagoa zela esaten zuten gurasoek.

Nik maite nituen bidaia horiek. Laster utzi nion saltokiko pasilloak gora eta behera zeharkatzeari, gurasoekin batera, erosketa-orgatxoaren ondoan. Alde batetik, topatua nuelako leku hartako txokorik interesgarriena, liburu denda alegia. Eta, bestetik, banuelako gurasoei enbarazu egiten nienaren nolabaiteko sentsazioa. Iruditzen zitzaidan apaletako produktuen eskaintza ezin zabalago haren erdian bakarrik ibiltzeko gogo zeukatela, ni



nintzen ume gogaikarri hura zaintzen egon beharrik gabe. Nahiz eta jogurtak eta esnea baizik ez erosi, azkenean. Ahal izan balute, pentsatu izan dut geroztik, Donostian utziko ninduketen, aitona-amonen etxean adibidez, saltokian beren kasa ibili ahal izateko. Baina ordurako liburu denda deskubritua neukan, eta Carrefour-era joateko desiatzen zegoena neu nintzen: halabeharrez eraman behar ninduten.

Liburu denda saltokiaren muturrean zegoen, ardoen eta edarien sailaren ondoren, jostailuekin batera. Korridore luze bakarra zen, metalezko apalategiekin. Komikiek betetzen zuten lehenengo partea; liburuak hondoan zeuden. Sekula ez nuen hainbeste komiki elkarrekin ikusi. Batzuk ezagutzen nituen: Tintin, Asterix, Pottokiak. Gehienak ez, ordea: han izan nuen, lehenengo aldiz nire bizitzan, Blueberry, Spirou, Ric Hochet, Luc Orient edo Valerian bezalako bildumak irakurtzeko aukera.

Umeak, gazteak eta ez horren gazteak bertara irakurtzera joaten zirela ikusi nuen lehenengo egunetik: apalategitik album bat hartu, lurrean eseri eta han ematen zuten denbora. Gero, irakurketa amaitzean, edo alde egin behar zutenean, zutitu, komikia apalategira itzuli eta kito, horixe zen dena. Gehienek ez zuten ezer erosten. Eta inork ez zien errietaryk egiten, saltokiko langileek ez behintzat. Hura paradisua zen ni bezalako komikizale batentzat eta, beraz, ez da harritzekoa Carrefour-erako erakusten nuen grina.

Aparkalekura iritsi bezain laster gurasoei agur esan eta korrika abiatzen nintzen liburu dendara. Eta bertan pasatzen nuen arratsaldea, zazpiak edo zazpi eta erdiak aldera gurasoak agertzen ziren arte, jogurtez eta esne erdigaingabetuko kaxaz beteriko erosketa orgatxoak bultzatuz.

Sistematikoa nintzen; izan ere, sistematikoa naiz oraindik ere nire irakurketetan. Lehenengo pertsonaia batekin hasten nintzen, eta ez nion haren albumak irakurtzeari uzten guztiak amaitzen nituen arte, lehenengo zenbakitik azkenekora arte. Ezagutzen nituenekin hasi nintzen, Tintin eta Asterixekin, irakurrita ez nizkien aleak irentsiz, eta ondoren beste guztiak etorri ziren. Frantseseko gau-eskolak hartzen nituen txikitatik, eta hizkuntza ez zen oztopo niretzat.

Blueberry «likidatuta», Ric Hocheten sailarekin hasia nintzen gurasoak Mamut-en kontuarekin hasi zirenean: Oartzunen merkataritza gunea berria ireki zuten, gure inguruetako aurrenekoa, eta bisitatzera joan behar genuen. Nik, printzipioz behintzat, ez nion inolako eragozpenik ikusten. Carrefour-en antzekoa izango zela uste nuen, eta horrek esan nahi zuen komiki berriak, komiki ezberdinak izango nituela eskura.



Ez zen hala izan, ordea. Carrefour-ekoa baino askoz ere txikiagoa izateaz gain, Mamut-eko liburu dendan ezin zen besterik gabe eseri eta irakurtzen hasi: komikiak eta liburuak erosteko zeuden soilik, jesarri bezain pronto langile batek adierazi zidan bezala: «Zer ari zara baina? Ez al zara konturatzen horrela jeneroa honda dezakezula? Tira, alde hemendik!».

Gau hartan, gurasoek ohean nengoela uste zutelarik, elkarren arteko elkarrizketa hau aditu nien. «Gogaikarria izan da. Eta guztia liburu denda madarikatu horrengatik». «Bai, emakumea, izugarria izan da. Ez digu bakea emango, hara itzultzen bagara». «Eskaintzak onak dira, ordea». «Mundialak». «Eta esnea ez dago Carrefour-en baino askoz ere garestiago». «Ezta jogurtak ere». «Ezta jogurtak ere, egia da hori». «Zure semearena izugarria izan da, dena dela». «Gutziz gogaikarria, bai horixe».

Hala ere, Carrefour-era joaten jarraitu genuen denboraldi batez: beste lau bider hain zuzen. Baina nik zer edo zer sumatu nuen lau bider horietako aurrenekoetik. Ez dakit zehazki zer izan zen, egun hartan gurasoak ohi baino beranduago iritsi zirela liburuen sailera nire bila, edo haien aurpegieran nabaritu nuen keinua, baina aldaketaren bat zetorrela jakin nuen. Carrefour-era itzuli ginen aldi bakoitza azkenekoa izango zela uste nuen. Halako batean «Hemendik aurrera Mamut-era joango gara» esango zidatela, eta betiko amaituko zirela nire Carrefour-eko egunak.

Baina ez zen hala izan.

Laugarren aldi hartan gurasoak ez ziren nire bila etorri. Ez zazpietan, ez zazpi eta erdietan, ez zortzietan, ezta zortzi eta erdietan ere, megafoniatik saltokia ixteko ordua zela iragarri eta argiak itzaltzen hasi zirenean. Han geratu nintzen, bakarrik. Ez nintzen handik mugitu, eta ez zen inor ohartu han geratu nintzela, ilunpean. Ez zitzaidan burutik pasatu parkingera ateratzea gurasoen bila, ondo bainekien ez nituela han topatuko, ez haiek ezta gure autoa ere, Donostian egongo zirela beren jogurt eta esne kaxa guztiekin. Biharamunean igandea zen, gainera, ez zen inor ibiliko saltokian. Denbora asko neukan pentsatzeko, beraz, eta baita irakurtzen jarraitzeko ere. Igande hartan Ric Hocheten bilduma amaitu eta Luc Orientenarekin hasi nintzen. Gosea neukanean, abrikotezko galleta batzuen bila joaten nintzen gosaritakoen pasillora; asko gustatzen zitzaizkidan galleta horiek, gurasoek oso gutxitan erosten zizkidatenak.

Ez naiz harrezkero Carrefour-etik atera. Hogeita zazpi urte dira jada, lekualdaketa eta guzti: saltokia Angeluko iparraldera eraman zutenean, eraikin zabalago eta modernoago batera, produktu eta



langile guztiakin batera eramán ninduten, inolako arazorik gabe. Ez da zaila saltoki handi batean nabarmendu gabe bizitzea, azken finean: kontua inguruarekin bat egitean datza. Eta bizitzeko beharrezkoa den guztia eskaintzen du leku honek: jatekoa, edatekoa, janztekoa. Eta irakurtzekoa, noski: lehenengo urte hura nahikoa izan zitzaidan bertako komiki bilduma guztiak bizpahiru aldiz irakurtzeko. Orduz geroztik, berrirakurketa hautatu batzuk alde batera utzita, nobedadeak baino ez ditut irakurtzen. Aitortu behar dut Asterixen azkeneko urteetako albumak geroz eta eskasagoak iruditu zaizkidala, eta pena handia hartu nuela Luc Luc Orienten 1994ko abentura azkenekoa izango zela jakin nuenean.

Izan ere, handik aurrera komikiak bigarren maila batera igaro ziren, eta liburuekin hasi nintzen; aipatu dut jada sistematikoa naizela kontu horri dagokionez. Jules Verne deskubritu nuen, *Le livre de poche* bilduman, eta demasa iruditu zitzaidan; urte batzuk geroago gauza bera gertatu zitzaidan Simenon-ekin: Maigret komisarioari buruzko liburu guztiak leitu ditudala uste dut. Mota guztietako liburuak irakurri ditut orduz geroztik: abenturazkoak eta poliziakoak, noski, baina baita zientzia-fikziozkoak, espioienak, maitasunezkoak, are erotikoak ere. Eta klasiko guztiak, noski, Flaubert, Stendhal, Maupassant eta enparauak, baita frantsesak ez diren dezente ere; halako asko argitaratzen dituzte frantsesek poltsikoko edizioetan. Eta saiakerak, eta Larousse entziklopedia osoa. Piloa ikasi dut nik hemen. Piloa.

Gurasoen falta sumatu ote nuen? Hasieran bai, pixka bat, ez dut ukatuko. Baina berehala ohitu nintzen, eta, gainera, zertarako arduratu? Haiek ez zuten nire bila etortzeko asmorik. Zuri ere gauza bera gertatuko zaizu, ez arduratu: azkenean, moldatuko zara. Ez, benetan, ez dut uste gurasoak bila etorriko zaizkizunik jada. Ez al duzu entzun txirrina? Hori langileentzako azkeneko abisua da, kanpoko atea itxi baino lehenago; bezeroak aspaldi joan dira. Ez dira zure bila itzuliko. Gogorra da, baina hala da; hobe onartzen hasten bazara.

Baietz, ohituko zarela, ziur nago. Gainera, ez al duzu esaten irakurtzea dela gehien-gehien gustatzen zaizuna? Ba hau paradisua da, motel: liburu denda perfektua. Ez, ez zara damutuko. Benetan.

Gero joango gara kirol sailera zuretzako lo-zaku baten bila, lasai egon. Nahi al dituzu abrikotezko galleta batzuk? Tintinen albumen atzean gordetzen ditut, gosea pizten zaidanetarako. Ikusiko duzu zein onak diren.

Ez horregatik.